

Urrats garrantzitsua, borrokari eutsi



28an BERRIRO GREBARA

Duela 20 urte baino gehiago greba batek ez zuela tamainako segimendua Osakidetzan. Hilaren 15ean, 8:00etatik 11:00ak bitarte, batzuek ezin izan zuten grebarik egin Osakidetzak ezarri zituen gutxieneko zerbitzuen gehiegikeriagatik, baina gainontzeko langileek (%80tik gora) Inclan sailburuaren nepotismo eta sektorearen aldarrikapenekiko duen errefusaren aurkako asanblada eta mobilizazioetan hartu zuen parte.

Administrazioak hamaika ahalegin egin zituen greba indargabetzeko eta ahalik eta eragin txikiena izan zezan: giza baliabideetarako zuzendaria den Jose Andres Blanco-ren eskutitza, gure aldarrikapenak andatzeko saiok (zenbat aldiz errepikatu zuen

Inclanek ETBn dirua baino ez genuela nahi sinestazteko?), gure borrokarako joera ez duen El Correo bezalako egunkariak aipatzen zituen gehiegizko zerbitzu minimoak.

Baina guzti honek ez zion ezertarako balio izan. Urte asko daramatzagu erosteko maila galduz, gure karrera profesionala nola zapuzten den ikusten, lan zama handiekin, osasunerako zerbitzu publiko eta gure baldintzak narriatzearen aurrean, Inclanen sailaren utzikieriaz. Urte asko dira, arrazoi desberdinak direla medio, egoera honen erantzuleak direnei aurre egiteko ados jartzerik ezinezko egin dutenak, hau da, Osasun Sailak eta Osakidetzako zuzendaritzari aurre egiteko.


Oraingo honetan eta Osakidetzako zuzendaritzaren harrokeriarengatik. Osakidetzak uste zuen Sindicato Medicoarekin lortutako akordioa nahikoa izango zuela sindikatuok mahai gainean jarri ditugun aldarrikapenak aintzat ez hartzeko. Gure arteko desadostasunak gainditu eta nahikoa dela aldarrikatzeko gaitasuna lortu dugu. Eta greba arrakastatsua izan da. Grebaren ostean, Jose Andres Blancok 'gogoan hartuko zuela' esan zien hedabideei.

Eta orain zer?

Osakidetzan hilabete hauetan burutzen ari garen mobilizazioak garbi eta argi adierazten du batasun sindikalarekin eta plataforma adostua defendatuz gai izango garela Osakidetzaren zorrozkeria zapuz-

teko. Hasteko, mahai sektorialera deitu egin dute, eta hau lorpena da ordezkariaren %90ari gatz eta piperra ukatzen zigutenenekiko. Baina ez da nahikoa. Aldarrikapenei tinko heldu eta aurrera egin behar dugu, eta hau presioarekin jarraitzen badugu baino ez da emango. Eta presioarekin jarraitzeko eta baldintza hauetan egiteko, sindikatuok eskuz esku joan behar dugu, elkarrekin posible da.

Hilaren 15eko greba oharpen serioa izan da Osakidetzarentzat, nahiko beharko luke izan gure bitartekaritza eta sektoreak aldarrikatzen dituen aldarrikapenak aitortzeko. Baina horrela izango ez balitz, sindikatuok datorren 28rako lanuzterako deia plazaratu dugu, eta ez da azkena izango Osakidetzaren arrastoan sartzen ez bada.



Ez gaituzte ixilduko